



## UPV/EHUn lan-baldintza duinak bermatu eta diskriminaziorik ez!

Ikasturte honetako lehen lauhilekoan EHUn greba egitera eta mobilizatzeraz bultzatu gintuzten arazo gehienek beren horretan diraute bigarren lauhilekoaren hasiera honetan. Gaurkoan, Klaustroa ospatu den honetan, elkarretaratzea egin dugu errektoretza-taldearen jarrera inmobilitista salatzen:

- **Ez dute hitz egin nahi ordezeko irakasle prekarioen miseriazko soldatei buruz, haiek, EHUn bertan negoziatu baidaitezke USLOk jasotzen duen moduan.**
- **Ez dute ezer jakin nahi EHuko langileen erosahalmenaren berreskurapenari buruz.**
- **Ez dute ezer jakin nahi EHuko irakasle-ikertzaileok 2006tik hona izoztuta ditugun osagarri gehigarrien eguneratzeari buruz (% 30etik gorako balioaren galera izan dugu). Horrez gain, osagarrien deialdiak erregularizatu eta publikazio-datak bete beharrei buruz ez dute ezer jakin nahi.**
- **Ez dute ezer jakin nahi ordezeko irakaslerik ez izateak eta dedikazio akademikoko programa berriaren aplikazioak dakarten lan-karga handitzeari buruz.**
- **Ez dute ezer jakin nahi azken boladan langileen alde egon diren epaiak betetzeari buruz (ikertzaileak, seiurtekoak denontzat, bosturtekoak lanaldi partzialeko langileentzat...).**
- **Ez dute ezer jakin nahi erretiroen inguruko murrizketen aurkako sententziari buruz. Unibertsitateak errekurritu egin du eta aurreikusten da aurreko akordioarekiko murrizketak egongo direla.**

Bereziki mingarria da, ordezeko irakasleen egoera. Irakasle horiei klase eta tutoretza orduak baino ez zaizkie ordaintzen, eta klaseak prestatzeko, formaziorako, irakaskuntzaren kudeaketarako lanerako edota irakaskuntzari lotutako ikerketarako orduak ez zaizkie aitortzen. Klaseak emateko lan-esku merke moduan erabiltzen dituzte ordezekoak. Gainera ordu horien ordutegia dela eta ezinezkoa egiten zaie osatzea halako kontratua beste lan batekoarekin. Hala, plaza horiek hutsik geratzen dira, logikoa denez, eta ordezekoen kredituak sailetako gainerako irakasleengan banatu behar dira. Horren ondorioa, irakaskuntza-karga handitzea eta irakaskuntza zatikatuta gera dadin izango da. Hori guztia irakaskuntzaren kalitatearen, ikerkuntzaren eta kudeaketaren kaltetan.

Sindikatuok neurri sorta proposatu genien EHUri eta Eusko Jaurlaritzari, prekarizazioa eten eta pertsonen ordezkapenak modu duinean betetzeko (arduraldi osoko irakasleak arduraldi osoko kontratuekin ordezkatzeko eta lanaldi partzialeko ordezkapenak egindako lanaren proportzio justuan ordaintzea, besteak beste). Errektoretzaren erantzuna argia izan zen: ez da negoziatziorik egongo ordezekoen inguruan eta, egoera horri irtenbidea emateko, laguntzaile doktore plazak eskaintzeko proposamena aurkeztu zuen, lan hitzarmenaren moldaketa baten bidez, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira: aurrekontu erabilgarritasuna, Sailaren dedikazio/gaitasun ratioa % 90 baino gutxiago ez izatea, aurreikusitako erretiroak eta 30 plazako muga 2024/25 ikasturtean. Baldintza horiek ez dizkiote arazoaren muinari erantzuten, hortaz, sindikatuek ezezko irmoa eman genuen.

Esan bezala, arazo guzti hauen erroa EHUn finantzaketa ez-nahikoan datza. Izan ere, gaur egun BPGren % 0,4 inguruan dago eta USLOren arabera 2030erako esleitu behar



da BPGren % 1a. Bitartean, ezin dugu utzi EHUren finantzaketa ez nahikoa langileon lan eta bizi baldintzen kontura. Errektoretzak presio handiagoa egin behar dio Eusko Jaurlaritzari, lan-baldintza duinetarako behar den diru-hornidura eman dezan.

Errektoretza-taldea eta Eusko Jaurlaritzaren jarrera murriztaile eta inobilistaren aurrean, EHUko irakasle eta ikertzaileok mobilizatzen jarraituko dugu lan-baldintza egokien eta kalitatezko unibertsitate publikoaren defentsan. Horregatik, LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok deituta, martxoaren 6an, EHUko irakasle eta ikertzaileok greba egingo dugu. Horregatik, martxoaren 12an, EHUko langile guztiok sektore publikoan deitutako grebara gehituko gara.

Prekarizazio eta diskriminaziorik ez!